

## AOB

### [BEGIAK HERTSI]

Begiak hertsia ta oharmena,  
sapai-leihoko kolkora:  
Areto bat baino leize itxurako  
bitarte, ilunabar arginabar aide  
zori batez, ertzen muga  
nabari [dut], ez barrena.

Bitarte, ilunabar arginabar aide  
zoridun horri, nagokio.

Ez da  
deus ari. Ez du hotsik.  
Zirkinik ez du. (Arnasa ta bihotza  
toki horrez kanpo aurkitzen dire.)  
Argitasunik ozta, erabat ilun ez dela  
esateko beste.

Begiratzen dut  
nahi dut herlaino iduritako hori  
aztertu. Galdetzen dut. Belarriak  
adi, sentimena. Pultsu motel bazuen [sic]  
ikara halako zerbait ote? Noizbait  
nabari ez dudana haize halakoak-edo  
itzuli iduriko batzu dagizkio  
gandu halakoari.

Jainkoa nahi nuke  
arima,  
graziaren aztarna  
barrunda.

Luzaro,  
aspaldia igaro dela nasake,  
ta hemen nago geldi nobarrari so  
egon eta itxaro.